

Urtarrilaren 3an  
**EGUBERRI ONDORENGO II. IGANDEA**

**Agurra**

Bizilekua gure artean jarri zuen Jesus Jauna, izan bedi zuekin.

**Sarrerako Oharpena**

Eguberriko jaien erdian, igandea ospatzera bildu gara mahaiaren inguruan. Jesusen gizon egitea ospatzen ari garen jaietan, Jesus Piztuaren misterioa berritzen dugu Igandea denez Eukaristia ospakizunean.

Gizakiarekin bere jaiotzaz bat egin zuen Jesu Kristo Jaun bera da, gizakien bidea urratu eta sufrimendua eta heriotza igarota guztioi bizi berria eskaintzen diguna.

**Damu-otoitza**

Jo dezagun betiereko Hitza den Jainkoagana eta eska diezaiogun biderako errukia eta barkamena.

—Jesus Jauna, Mariagandik jaio / eta gure senide egin zinen Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure ahuleriak ezagutzen / eta maitasunez ulertzen dituzun Gizonaren Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu guztiokin familia bat bera egiten duzun / Aitaren Lehen Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

**Aintza**

Kanta dezagun aingeru eta artzainekin Eguberri gaueko kantu alaia:  
Aintza zeruetan, bakea lurrean!

## Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa, fededunen argia,  
bete ezazu mundu osoa zeure aintzaz,  
eta argi distiratsu horrek  
eraman ditzala herrialde guztiak Zu ezagutzera.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## Hitzaren liturgiari oharpena

Jakinduria, Jainkoa bera da Itun Zaharrean. Jainkoak herri bat aukeratzen du, munduaren erdian bere Maitasunaren irudi eta eragile izan dadin. Israel da lan horretara deituriko herria: eta gu Israel berria gara Jesu Kristorengan.

## Lehenengo irakurgaia (Si 24, 1-4. 12-16)

Siraken liburutik

Jakinduriak bere burua goستن du, bere herriaren erdian aintzaz betetzen da. Goigoikoaren batzarrean bere ahoa irekitzen du, eta Haren indardunen aurrean aintzaz betetzen da. Bere herriaren erdian goratua izango da, eta santuen batzar osoak ospe emango dio; aukeratuen taldeek gorespenak emango dizkiote eta bedeinkatua izango da bedeinkatuen artean. Orduan, guztien Egileak agindu zidan, ni sortu ninduenak etxola eraiki zidan, eta esan: «Jakobenean bizi zaitetz, eta Israel izan bedi zure ondare». Hasieran, gizaldiak baino lehenagotik, sortu ninduen, eta inoiz ere ez dut amairik izango. Etxola santuan, Haren aurrean, egin dut zerbitzu,

eta Sionen ipini dit bizitoki. Hiri santuan eman dit atsedeen, eta Jerusalem dago nire agintzaritza. Izen handiko herrian bota ditut sustriak, Jaunaren ondarean, Haren lurrean.

### Erantzun-salmoa (Sal 147, 12-13. 14-15. 19-20)

Hi - tza ha-ra - gi e - gin zai - gu. Gu - re - an Ha - ren bi - zi - le - ku.

Jerusalem, ospa ezazu Jauna,  
Sion, goretsazu zure **Jain**koa.  
Zure ateen sarrailak indartu baititu,  
zure semeak zure barnean bedeinkkatu ditu. R/.

Zure mugetan bakea ezarri baitu,  
gari-mamiz ase zaitu.  
Bidaltzen du lurrera bere mintzoa,  
eta Haren hitza bizkor eta arin doa. R/.

Iragarri dio bere hitza **Jakobi**,  
bere erabaki eta aginduak **Israeli**.  
Ez dio egin horrelakorik beste **herriri**,  
bere aginduak ez dizkio agerttu besteri. R/.

### Bigarren irakurgaia (Ef 1, 3-6. 15-18)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, Espirituaren era guztietako bedeinkapenez, zeruan Kristorengan bedeinkatu gaituena. Harengan aukeratu baikintuen, mundua sortu beino lehen, Haren aurrean, maitasunez, santu eta errugabe izan gaitezen. Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko, Jesu Kristoren bidez, bere nahiaren onberatasunez; bere Seme maitearengan hain ugari eman digun graziaren aintzak Bera gorespenez bete dezan.

Horregatik, Jesus Jaunarengan duzuen sinestea, eta santu guztienganako daukazuen maitasuna entzunda, etengabe ari naiz zuengatik eskerrak ematen, neure otoitzetan zuetaz oroitzuz. Jesu Kristo gure Jaunaren Jaungoikoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela jakinduriatzko eta goi argizko espiritua, Bera ezagutzeko. Argi bitza zuen bihotzeko begiak, horrela jakin dezauen nolakoa den Haren deiaren itxaropena, nolakoak Haren aintzaren aberastasunak, Berak santuei oinordekotzan emanak.

### Aleluia (1 Tm 3, 16)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

Aintza **Zuri**, Kristo,  
hots egine izan baitzara **atzerri**ei;  
aintza **Zuri**, Kristo,  
sinetsia izan baitzara **munduan**. R/.

### Ebanjelioa (Jn 1, 1-18)

## Homiliarako argibideak

### *Jainkoak Kristogan aukeratu gintuen*

Eguberrietako misterioak gure fedearen muinera itzularazten gaitu, inoiz ahaztu behar ez dugun horretara, gure bizitzak markatu behar dituen horretara, eta gure fedearen gainerako egiak kokatzen laguntzen digu. Jainkoaren hurbiltasunaren misterioa da, maitasun-gertutasuna, samurtasunez eta errukiz betea.

Jainkoak haragia hartu du, gure ahultasuna onartzen du eta gure artean jartzen du bere bizilekua (Jn 1,18). Horrela, gurekin ibil daiteke. Eliza ere munduarekin "ibiltzen" da. Eliza, Jainkoaren etxea ez ezik, munduari bere erromesaldian laguntzeko landatu eta altxatu daitekeen denda ere bada. Munduarekin ibiliz, Elizak fruitu eman behar du, Jainkoaren Espirituaren emaitzak eman. Ezin da pikondo antzu bat izan, ebakitzea merezi duena, alferrikako lekua hartzen baitu. Eta fruituak eman eta jasotzen direnean, ospatu egin behar da, Gabonetan egiten dugun bezala. Jesus Aitaren fruitua da, baina baita Mariaren fruitua ere.

Eliza batez ere pobreenengandik hurbil egoteak adierazten du Jainkoaren hurbiltasun hori. Jainkoa gure munduan sartu da, baina ez du bere aintza galdu, alderantziz. Jainkoaren handitasuna Jesusengan agertu da, graziaz eta egiaz betea. "Jainkoaren aintza gizon biziduna da, eta gizakiaren bizitza Jainkoa ikustea da" (San Ireneo). Gizon egiteari esker, Jainkoaren Hitza ikusgai bihurtzen da eta Jainkoa ikus dezakegu. Jainkoa izaki guztietan eta giza historian ikus dezakegu, salbamen-historia baita. Jainkoak berak egiten du Historia gure historia txikien bidez.

Jainkoak gizakiekin bizi nahi izan du (Si 24,1-4.12-16). Jainkoak bere isolamendu trinitario ederrean bizi ahal izango zuen. Hala ere, gurekin bizi nahi izan du gu berarekin elkartzeko. Eta horretarako sortu du gurekin batasuna eta bizikidetzeta. Aitaren eta Semearen

arteko maitasun-komunioa izan du oinarri, eta gu guztiok Semearengan seme-alaba izatea nahi izan du (Ef 1,3-6. 15-18). Salbamen-egitasmo hori mundua sortu aurretik existitzen da. Gizakiaren bekatuek ere ezin izan dute baliogabetu. Jainkoak, bere maitasun eta santutasunaren bizitzan parte hartzeko deia egiten dio gizakiari.

Gizakiak Jainkoarekiko harremanean bizitzeko dei hori aurkituko du bere izatearen sakonean sartzen denean, kanpotik manipulaturata bizi garen eguneroko bizitza ez-benetakoaren azalkeatik eta arinkeriatik harago joanda. Isiltasunean eta misterioareiko begirunez norbera bihotzaren barruko santutegian sartzen denean, Jainkoa han egoteaz gain, bere gizatasuna Jainkoaren irudira sortua dela konturatuko da. Konturatuko da bihotzean dauden zorion-nahi amaigabeak betierekotasunetik baldintzarik gabe maite gaituen norbaitekin elkartzearekin bakarrik ase daitezkeela, eta horregatik ekarri gaituela bizitzara. Gizakundearen misterioak, gu Jainkoarekin elkartzen gaitu. Eukaristiaren ospakizunean eskerrak ematen dizkiogu Jainko Aitari, Semearen bidez bere seme-alaba egin gaituelako.

### Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senideok, bere jaiotzan munduaren aurrean Salbatzaile eta Erosle agertu den Jaunaren errukiari

*Erantzuna:* **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**

E-ra kuts gu ri, Jau- na, — zu - re bi-hotz o - na.

— Bere Eliza onginahi handiz zaindu dezan munduko erromesaldian eta bere artzainei lagun diezaien bere eginkizuna betetzen. Egigun otoitz. R/.

- Nazio guztietan bakea nagusitu dadin eta herri guztiak egunetik egunera Kristoren jaiotzak mundura ekarri duen senidetasun indarrak jabetu daitezten. Egigun otoitz. R/.
  - Behartsu eta gaixoek, errefuxiatuek eta gerraren sarraskiak jasaten dituzten guztiek, ezagutu dezaten, egun hauetan, Kristok gizakientzat dakarren bakea eta maitasuna. Egigun otoitz. R/.
  - Gure kristau-elkarteko familia guztiek, asma dezatela behartsu eta gaixoengan Kristo bera onartzen eta zerbitzatzen. Egigun otoitz. R/.
- Entzun, Jauna, gure otoitzak eta egizu zure Semearen jaiotza pozik ospatzen dugunok gaitz guztietatik askaturik egiaren ezagutzan aurrera egin dezagula beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa: Eguberritako III. Prefazioa.** (*Meza-liburua: 475. or.*)

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Jainko gure Jauna, apalki eskatzen dizugu,  
sakramentu honen indarrak  
garbi gaitzala geure grina txarretatik  
eta bete ditzala gure asmo zuzenak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Bedeinkapen Nagusia** (*Liburuxka honetan: 19. or.*)